



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

2008ko apirilaren 19ko
Biltzar nagusia

Assemblée générale
du 19 avril 2008



Ekintzen bilduma

Bilan d'activités 2007

Euskal kultur erakundea - Institut culturel basque
Lota Jauregia - Château Lota - BP 6 - 64480 Uztaritze - Ustaritz
Tel. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84
<http://www.eke.org>





AURKIBIDEA

- Euskal kultur erakundeko barne antolaketa3
- Euskal kultur erakundeko ekintzak :.....5

Euskal kultur erakundeko barne-antolaketa

* _ * _ * _ * _ *

BILTZAR NAGUSIA :

248 kideek osatzen dute : 102 kultur elkarte eta 146 herri (Euskal kultura sostengatzen duen Sindikataren partaide direnak) eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

Euskal elkarteen ordezkariak :

Xabi IBARBOURE, Frantxua COUSTEAU, Paxkal INDO,
Sylvie LACAU (ondotik Patrick LARRALDE), Beñat CHASSEVENT,
Ximun CARRERE, Jokin ÇALDUMBIDE, Michel ORONOS.

Legezko ordezkariak :

Estatua :

- Marc CABANE (Prefeta),
- Jean-Jacques CARON eta Eric MORVAN ondotik (Suprefeta),
- François BROUAT, Jean-François SIBERS (DRAC Aquitaine).

Akitania lurraldeko kontseilua :

- Jean-Joseph LISSAR (Lurraldeko kontseilaria),
- François MAITIA (Lurraldeko kontseilaria),

Pyrénées-Atlantiques-etako Kontseilu Orokorra :

- Max BRISSON (Biarritzeko kontseilari orokorra),
- Bernard GIMENEZ (Angeluko kontseilari orokorra),

Euskal kultura sostengatzen duen Herriarteko sindikata :

- Ramuntxo CAMBLONG (Angeluko hautetsia),
- Philippe GOYETCHE (Larresoroko hautetsia).

Pertsonalitate kalifikatuak :

Jean-Louis DAVANT, Mikel ERRAMOUSPE,
Xabier ITZAINA, José-Maria MUÑO-A-GANUZA.

Beti gomiatuak :

Erramun BACHOC (hizkuntzalaria),
Jean-Claude IRIART (Euskararen erakunde publikoaren zuzendaria)

Konduetarako komisarioa :

Michel FAGOAGA

BULEGOA :

Lehendakaria : Mikel ERRAMOUSPE
Lehen lehendakariordea : François MAITIA
Bigarren lehendakariordea:..... Sylvie LACAU
Diruzaina : Frantxua COUSTEAU
Diruzainordea: Philippe GOYETCHE
Idazkaria : Titto Aguerre
(uztailaren 12a arte)
Idazkariordea : Beñat CHASSEVENT

TALDE PROFESIONALA :

Zuzendaria : Pantxo ETCHEGOIN

Zuzendariordea : Daniel LANDART

Sail arduradunak :

Etnologia - ondarea : Tereza LEKUMBERRI

Euskarazko kultur animazioak : Pantxika MAITIA

Kultura bitartekaritza : Jakes LARRE

Ikusgarritza : Frank SUAREZ

Kontabilitatea / Idazkaritza : Maddalen ERROTABEHHERE-DUPUY
(astean 3 egunez)

Idazkaritza / Euskarazko itzulpenak : Frederik BERRUET

**Arartekolaritza « Euskal munduak »
erakusketaren inguruan (kontratu mugatua)** : Julie BERCETCHE

1.1/ Euskal Herriko ahozko ondarearen bilketa, zainketa eta baloratzea

Ondarea, jendarte baten nortasuna osatzen eta jendarte hori besteetatik bereizten duten osagai material eta inmaterial guzietan osatua da. 2007an, Euskal kultur erakundeak ahozko ondareari eta ondare inmaterialari lehentasuna eman die (bizipenen eta jakitateen kontaketak, bertsuak, leiendak, erran-zaharrak, ipuinak, kantuak...)

Ahozko bilketa Baxe-Nafarroan

Nafarroako erakundeek proposaturik (Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Euskokultur fundazio pribatua) eta Baxe-Nafarroako PCD-aren, Kontseilu Orokorraren, Akitaniako Eskualdeko Kontseiluaren diru partaidetzarekin, EKE-k memoria kolektiboaren bilketa bat abiatu du Amikuzen. Donapaleuko (Marie Oxarango, Kattin Harizgarat, Kattina Etcheverry, Ttote Ainciboure, Marie-Jeanne Auchoberry), Gabadiko (Alexandre eta Pantxika Bordagarai, Albert Dubois), Garruzeko (Isidora Claveranne) eta Martxutako (Léon Tissier) 10 presuna xahar grabatuak eta filmatuak izan dira 2007ko abuztua eta Abendua bitartean. Bildutakoa numerisatua izan da, sekuentzia batzutan zatitua, indexatua eta Nafarroako Unibertsitate Publikora bidalia. Honek bere datu-basean eta berak sortu webgune berezi batean sartuko du. Bi euskarriek Nafarroako Aurrezki Kutxaren dirulaguntzak ukan dituzte. Azken dokumentuak disko gogorretan atxikiak dira Aldudarrak Bideo (operazioaren partaide tekniko) elkartearen egoitzan eta Euskal kultur erakundearen. Bestalde, departamenduko artxibotegiak bilketa lan hori bere soinu artxiboetan sartzeko xedea du, Baionako artxibotegiaren bitartez.

Esperientzia horri esker bilketa, numerisazio eta artxibatze metodologia bat finkatua izan da, ondoko urteetan Baxe-Nafarroa osoan baliatzen ahalko dena.

Euskal antzerkia : artxiboen numerisazioa

Oiartzungo herriak onartu baitu Euskal Herriko antzerki artxibategi osatuena izatea, Eugenio Arozena bilketa lanetan ari izan da. Eugenio Arozena, Eusko Jaurlaritzako Antzerki Departamenduko zuzendari ohia da eta antzerki mundua ondi ezagutzen du. Bildu dituen dokumentu guztiak numerisatu ditu.

Baxenabarreko eta Lapurdiko antzerkiari dagokionez, Daniel Landartek laguntza ederra ekarri dio. Bere artxiboak baita Euskal Antzerki Taldeen Biltzarra (EATB) elkarteak prestatu dizkio eta iparraldeko idazleei, zuzendariei eta jokolariei gauza beraren egitea galdegin die. Denek onartu dute. Eskertzekoak dira: Antton Luku, Pantzo Hirigaray, Mattin Irigoyen, Guillaume Irigoyen, Eñaut Larralde, Txomin Héguay, Arño Uhart, Jean-Pierre Challet, Angel Arregui, etabar, ekimen horretan parte hartu baitute. Beren lekukotasuna ekarri dutenak izan dira: Jean-Louis Davant, Jean-Michel Bedaxagar, Pantxoa Etchegoin, besteak beste.

Piarres Larzabal antzerki idazlearen oroimenez

Herri guzietan ez bada, gehienetan bederen, denboran zerbait aipagarri gertatu da edo/eta norbait berezi sortu eta bizi. Herri memoria hori eskuratu nahiz, Euskal Kultur Erakundea Azkaingo auzapez eta axuant batzuekin harremanetan sartu da Piarres Larzabal omendu nahiz. Sortzez azkaingarria zen, apeza eta euskal antzerki idazle famatua. 1988an pausatu zen. "Piarres Larzabal urtea" hasiko da Azkainen, 2008ko urtarrilaren 26an. Gero, mintzaldiak eta antzerki emanaldiak antolatutako izanen dira : Biarritzen, Ziburun, Heletan, Ortaizen, Alduden, etabar.

Ameriketako artzainen topaketa

« Ohore zuri, euskal artzaina »

1950-1960 urteetan Ameriketara joan euskal artzainen topaketak 2007ko irailaren 29tik urriaren 1era ospatu dira Alduden, Gernikan, Arantzazu / Oñatin, "Ohore zuri, euskal artzaina" lelopean. "Artzain Mundua" elkarteak izan da topaketa horien antolatzaile nagusia. Euskal kultur erakundeak ere horien antolaketan parte hartu du, besteak beste artzainen omenezko gaualdia berezi bat antolatuz irailaren 29an, larunbatarekin Baigorriko Bil Etxea gelan. Euskal Herrirat itzuli diren bi artzainen bideo lekukotasunak, Reno-Nevadako Unibertsitatean historialaria den Jose Malearen bideo-konferentzia bat euskal artzainek Estatu Batuetako zuzurietan grabatu hitzetaz, haraneko kantariak eskaini emigrazioari buruzko kantuak, horiei guzietan esker, gaualdia goxo eta hunkigarria izan da. Biharamunean, artzainak Aldudera izan dira, han omenaldi egun bat antolatua zelarik.

Frédéric Fuldain-i omenaldia

Bidarraiko herriarekin eta San Frantziskoko N.A.B.O. elkartearekin partaidetzan.

Uztailaren 8an, Bidarraiko herriak eta Euskal kultur erakundeak 2006an Kalifornian zendu Frédéric Fuldain herritarra omendu dute. 1951n Estatu Batuetara joanik, bere biziko zati handiena euskal kultura sustatzen iragan du San Frantziskoko Euskal kultura zentroaren bitartez.

Horrela, "Zazpiak Bat Dance Group" dantza taldearen eta "The San Francisco Klika" txarangaren sortzailea da. Ameriketako euskal komunitatearen bizian gogotik parte hartu du, euskal folkloean, pilotan, musean edota San Frantziskoko Euskal kultura zentroaren sortzean.

Bidarraiko herriak, San Frantziskoko Euskaldunek eta Euskal kultur erakundeak omendu dute uztailaren 8an, igandearrekin, goizeko 10etatik goiti (meza, omenaldia, bazkaria Kantiruki alaitua, pilota partida).

Uztaritzeko latsagiaren zahar-berritzea

Errobi-Ur Hertsi PCD-aren barne, Uztaritzeko Herriko Etxeak herriko latsagia zahar-berritu du. Karia hortara, Etxarriko Formakuntza Zentroaren, Baionako Tokiko Ordezkaritzaren, Angeluko bidaide federazioaren eta Euskal kultur erakundearen arteko partaidetza lan bat egin da. Alabaina, 16 eta 24 urte arteko 16 gaztek latsagiaren zahar-berritze lanak enpresa barneko ikastaldiekin tartekatuta dituzte. Horrela, 10 egun erdiz, ondareari buruzko hurbilketa bat egin dute, Uztaritzeko toki sinboliko bazu ezagutu dituzte, uraren tematikari lotuak ala ez (Heraitzeko latsagiak eta kisu-labea, Haitzeko eihera, komentuko itsas-ontzi iduriko latsagia, etab). Bestalde, Uztaritzeko biztanleek ongi ezagutu duten latsagi horren historia kontatu diete. Euskal kultur erakundeak ondarearen sentsibilisazio eta memoria kolektibo horren berreskuratze lan hori bere gain hartu du.

Xiberoko kantu artxiboen numerisazioa

Sü Azia elkarte

1990 urteetan, Sü Azia elkarteak dokumentu soinudunen bilketa lan handi bat egin du (kantu, pastoralak, hots 400 oren grabaketa). Fondo honen bizi iraupena mugatua da eta bere egoeran, ezinezkoa da baliatzea. Lan urrats desberdinak beharrezkoak dira horren erabili ahal izateko eta publikoak kontsultatzeko parada ukan dezan: numerisatu behar da, artxibatu (indexatu, datu-base bat sortu), eskubideen izenpetzeaz arduratu behar da etab. Sü Azia elkarte, Xiberuko herri elkargoa, Kontseilu Orokorra eta Euskal kultur erakundea elkartu dira urrats horien bideratzeko.

2007an, bereziki elkartearen fondo guziari baina ere ipar Euskal Herriko beste baloratzeko operazio batzuei aplikatzen ahalko den metodologia baten idazketan eta osatzean lan egin da. Okzitaniako Tolosako Unibertsitatean musikologia doktorago bat prestatzen ari den Marie Hirigoyen arduratu da lan hortaz. 2008an, 2007an hasi numerisazio eta artxibatze lana jarraituko da.

Bizitegia, kultura, nortasuna

2006an Euskal kultur erakundeak eta Arkitektura, hirigintza eta ingurumenaren aholku batzordeak (C.A.U.E.) gogoeta berezi bat eraman dute Euskal Herriko etxe garaikideaz (aspaldiko urteetan hasi gogoeta). Bi egiturek artista egonaldiak, eztabaidak eta gogoeta tailerrak antolatu dituzte 2007an euskarri pedagogikoak sortzeko xedearekin. 2007an Departamenduko Arkitektura, hirigintza eta ingurumenaren aholku batzordeak arkitektura gida bat sortzen aritu da. Honi esker etxea eginen duen bakoitzak balio handiko gida bat ukanen du, bere urratsetan lagunduko duena eraikitzeko asmotik eraikuntzaraino. Euskal kultur erakundeak, ondoko hilabeteetan Euskal Herrian euskarazko itzulpenarekin banatuko den gida horren egiten parte hartu du.

Euskal itsasoaren historia : Euskaldunen itsasoaren maleta

Itsas Begia elkarte

Itsas Begiak ikasleei eta irakasleei zuzendu euskarazko eta frantseseko tresna pedagogiko bati buruz lan egin du (gaika sailkatuak diren fitxez osaturiko maleta). 2007an hautatu gaia balea zen. Fitxa horien osatzeko, lan-talde batek besteak beste, Nelson Cazeils-en lanak baliatu ditu.

« Xaharren urratsetik »

Caisse d'Épargne Pays de l'Adour banketxearen laguntzarekin antolatu proiektu honi esker Baigorriko bi eskola elebidunetako (pribatua eta publikoa) hurrek bai eta ere Irisarriko eskola elebidun publikokoek adinetako hamar pertsonen gana izan dira. Hauen lekukotasunak bildu ondoan, ariketa ezberdinak egin dituzte: berri paperak eskolako aldizkariarentzat, erakusketa bat, Donibane-Garaziko Vauban zinema aretoan eta eskola besten kari aurkeztu antzerki laburrak. Proiektu hau Baxe-Nafarroako herri antzokiak proposatu memoriari buruzko egitasmoan sartu da ere.

Iparraldeko dantza musiken bilketa **Philippe de Escurra musikariak egin ikerketa eta harmonisazio lana**

Proiektu honen helburua da iparraldeko dantza musiken partidurak liburu batean biltzea. Liburu hau baliatzen ahalko dute dantza talde guzietatik baita musikariek Euskal Herriko ohiturak biziartzeko. Lan honek bi ardatz dauzka :

- Ahantziak edo arrotzak diren dantzak bilatzea, Galtxetaburu eta Cornelio musikari famatuak emaiten baitzuzten eta gure erreperatoriokoak baitira..., eta mutxiko eta fandango berriak sortzea, gure erreperatorioren aberasteko.
- Dantza horien harmonisazioa, eta lehen aldikoz, partidurak melodiarekin, doinu lagun eta urratsak markatuz. Liburu hori baliagarri izanen zaie ez bakarrik akordeoilarietara baita ere edozein orkestra eta taldeei. Gainera, tresna pedagogiko bat izan daiteke, aholku teknikoak ere ematen baititu.
Liburuaren izenburua : “Iparraldeko dantzak”. Argitaletxea : Bat-Bi.

1.2 Euskal kulturaren heziketa

Hezkuntza artistikoa eta kulturala eskola munduan

Euskal kultur erakundea, Inspektzio Akademikoaren eta DRACaren aldetik baliabide iturri gisa onartua da. Hezkuntza artistikoa eta formakuntza orokorki euskaraz eraman ditzake eskola orenen barnean eta eskola orenez kanpo.

Kultura heziketaren garapenerako departamenduko Planaren barnean (partaideak direla : Errektoragoa, Inspektzio akademikoa, DRACa, Departamenduko gazteria eta kirola zuzendaritza, Kontseilu Orokorra, Akitaniako Kontseilua eta Herriko Etxe zenbait), Euskal kultur erakundea 4 egitasmoren bitartekaria izan da :

Lehen mailako eskoletan :

RPI Idauze-Mendi – Mendikota (64) – Zikloak : 1, 2 et 3.

Ikasleen kopurua : 52. Koordinatzailearen izena : Maylis Fordin.

Egitasmoaren izenburua : « Euskal leiendak ». Azalpena : Tokiko leiendak bildu eta antzerki moldean ezarri. Artista eskuhartzalea : Pierre Vissler

RPI Donamartiri, Donoztiri (64) – Zikloak : 1, 2 et 3.

Ikasleen kopurua : 65. Koordinatzailearen izena : Veyrie Anderea.

Egitasmoaren izenburua : « Hercule kondairen herrian ».

Azalpena : Elgarren artean asmatu ixtorio baten sorkuntza, aitzineko urtean egin pareta tindaketa batetarik abiatuz. Artista eskuhartzalea : Christophe Prud’homme.

Baionako Bernat Etxepare Lizeoa (64)

Ikasleen kopurua : 58. Koordinatzailearen izena : Guillermo Echebarria

Egitasmoaren izenburua : « Bertsoz-bertso »

Azalpena : Euskal Herrian hain preziatua den bertsoaren historia eta teknikak ikastea, eta bat-batekotasuna lantzea.

Artista eskuhartzalea : Carlos Aizpurua.

Baionako Bernat Etxepare Lizeoa (64)

Ikasleen kopurua : 60. Koordinatzailearen izena : Maite Bergara

Egitasmoaren izenburua : « Olerkiz-olerki » (euskal poesiaren itzulian)

Azalpena : Olerkari baten ibilbidearen ezagutza egitea. Olerkiak idaztea, bakarka edo taldean.

Poeta eskuhartzalea : Auxtin Zamora, eta idazle gomitatua : Itziar Madina.

Beste ekintzak eskola munduan

« BAT BIGA HIRU » : idazleen eta ikasleen topaketak

Erran bezala, euskal idazleei galdegin diegu « *Euskal munduak* » gaiaz zerbait idatz zezaten eta hamazazpi erantzun ukan ditugu.

Alazne Petuya, Maite Oxandabaratz eta Yves Haran hiru sareetako pedagogia aholkulariek idazkiak irakurri dituzte eta erabaki dute denen eskoletara igortzea, hautaketa irakasle bakoitzaren gain utziz.

CM1 eta CM2 mailetako haurrek parte hartu dute egitasmo honetan. Hona nor, non, noiz ibili den :

AMESTOY Koldo (6 saio)

- Itsasuko San Josep eskolan : martxoaren 19an (10:00 - 11:00) ;
- Hazparneko ikastolan : martxoaren 26an (15:00 – 16:00) ;
- Hendaiako ikastolan : apirilaren 24ean (13:45 - 14:45 eta 14:45 – 15:45) ;
maiatzaren 3an (13:45 – 15:45)
- Biarritzeko ikastolan : apirilaren 30ean (10 :30 – 11 :30)

ARCOCHA Aurelia (3 saio)

- Baionako Oihana ikastolan : martxoaren 23an (14:00 – 16:30)

BIDEGAIN Eneko (3 saio)

- Ortzazeko ikastolan : apirilaren 2an (11:30 – 12:30) ;
- Sarako ikastolan : maiatzaren 3an, (11:00 – 12:00) ;
- Donapaleuko eskola publikoan : maiatzaren 11an (9:00 – 10:00)

DIRASSAR Janbattitt (2 saio)

- Biarritzeko Santa Maria eskolan : apirilaren 5ean (10:30 – 11:30) ;
- Ziburuko San Mixel eskolan : apirilaren 5ean (13:30 – 14:30)

DUHAU Henri (saio bat)

- Kanboko ikastolan : apirilaren 2an (15:00 – 16:00) ;
- Hendaiako Lissardy eskolan :

IRIGOYEN Mattin (saio bat)

- Itsasuko eskola publikoan : maiatzaren 3an (10:45 – 11:45)

JORAJURIA Peio (3 saio)

- Bidarraiko eskola publikoan : martxoaren 30ean (9:00 – 10:00) ;
- Uztaritzeko ikastolan : apirilaren 5ean (15:45 – 17:00) ;
- Baionako Jean-Moulin eskolan : apirilaren 6an (9:00 – 10:15)

LANDART Daniel (saio bat)

- Hazparneko Santa Terexa eskolan : maiatzaren 15ean (14:00 – 15:00)

Bestalde, Daniel Landart bi aldiz izan da Xalbador kolegioan 4.eko ikasleekin mintzatzen : apirilaren 8an, astelehen goizez eta arratsaldez. Iparraldeko antzerkiaren historia aipatu die baita berak idatzi « Ama » obra. Izan da ere Hazparneko Ursuia kolegioan maiatzaren 31an (« Batita Handia », 4.ekoekin) eta ekainaren 15an (« Aihen ahula », 6.ekoekin), baita Baionako Polo Beyris ikastolan (« Aihen ahula ») liburuaz solastatzen.

Euskarazko antzerkia eskola pribatuetan*Euskal Haziak elkartea*

Ikasturtean zehar, 21 ikastetxe eta kolegiotako ikasleek antzerkiak idazten aritu dira, bai eta gorputz espresioa lantzen euskarazko antzerkitxoek aurkezteko.

Ondotik, aste batez, ekainaren 4tik 8ra Urruñan, antzerkitxo horiek ikastetxe ezberdinetako ikasleen aitzinean aurkeztuak izan dira.

Bertsu – hip-hop*Iparkor elkartea*

Sostengua ukan dute Jon Eyherebabide eta Toni MAK taldeko kideek urtarriletik maiatza arte Baionako B. Etxepare lizeoan zuzendu hip-hop eta rap dantza tailerren animazioarentzat. MAK taldearen « Denak ala iñor ez » bideotik abiatuz, tailerrek maiatzaren 9 eta 10ean Akitaniako Lizeoetako Ikasleen jaialdian (La Teste de Buch) aurkeztua izan den « Emazteen fabore » ikusgarria eman dute.

Poesia – musika

F3C elkarte

Itxaro Bordaren « Neandertalen ametsak » olerkitik abiatuz, Jean-Claude Enriquez lagundu ikasle batzuk ikusgarritxo bat sortu dute. Irakurketak aitzinetik grabatu dituzte eta testuak musikan ezarri. Txalaparta, litofonoak, kordofonoak, burruna, adarra, txistua, alboka, Otsozelaiko txistua bezalako soinu-tresna tradizionalak edo/ta zaharkituak baliatu dituzte. Ikusgarria La Teste de Buch herrian iragan Ikasleen Jaialdiarako hautatua izan da eta han aurkeztuak izan diren ehun emanaldietatik bost hoberenetan sailkatua izan da.

Kultur animazioak Zuberoan

IKAS

Lau animazio desberdinak Zuberoako euskal ikasleendako :

- ✘ Eguberriz (Bruno Hoelmert eta Mixel Etxekopar – ipuinaldia)
- ✘ Korrika ttiki,
- ✘ Xiru festibala denboran (edergintzan oinarritu egintzak),
- ✘ Kantu, antzerki eta joko.

Eskolatik kanpoko euskarazko aisialdiak CETL kontratuaren baitan

Euskal kultur erakundeak lanean segitzen du orain artinoko herriko etxeekin. Familien alokazio kutxarekin hitzarmenak izenpetuak dituzten herriko etxe batzuek euskarazko animazioak proposatzen dituzte gazteeri asteazkenetan, larunbatetan edo oporretan. Euskal kultur erakundeak kultura arartekolaritza egiten du tailer ezberdinentzat Hendaia, Angelu, Urruña, Aldude-Banka-Urepele eta Garazi-Baigorriko herri elkargoarentzat.

Dantza eta kantu tailerrak

Iparralai elkarte

2004an sortu tailer honek Baxe-Nafarroako 17 herri desberdinetatik etorri 6 eta 11 urte arteko berrogeita hamar bat haur biltzen ditu. Helburua dantzaren eta musikaren artean diren harremanen sakontzea da. Klaseak euskaraz izan dira. Erakasleak hauek ziren : Denise Olhagaray, Bernadette Urrutia eta Amaia Lerissa. Lorentxa Ithurralde ere tarteka parte hartu du.

Arte plastikoak

Zirrimarra elkarte

Arte tailerrak haurrentzat (euskaraz eta frantsesez) Garazi – Baigorriko 30 haurrentzat.

Laguntzaileak : Denise Olhagaray, Bernadette Urrutia, Amaia Lerissa eta Lorentxa Ithurralde.

Haur kantu txapelketa

Haur kantu txapelketa

- Lapurdiko finalerdia : apirilaren 22an Urruñan
- Xiberoko finalerdia : maiatzaren 6an Maulen
- Baxe-Nafarroko finalerdia : maiatzaren 20an Irisarrin.

Finala : ekainaren 10ean Biarritzeko Gare du Midi aretoan.

Ohiko euskal dantza

Iparraldeko Dantzarien Biltzarra (lehengo Euskal dantzarien biltzarra)

IDBk klaseak ematen ditu astero ohiko dantza taldeei eta lehen mailako eskola desberdinei. Irakasleak : Céline Duperou eta Jon Iruretagoyena. Marie Errecart arduratu da musika klaseetaz.

Bestalde, federazioak formakuntza bat antolatu du euskal dantza erakasleentzat. Bigarren urtean, Elirale konpainiako Célia Thomas prestakuntza fisikoa eta dantzaren oinarrietaz arduratu da, Claude Iruretagoiena eta Garikoitz Otamendi alor tradizionalaz arduratu dira eta Ballet Biarritzeko Dominique Cordemans haurrekin egin beharreko lanaz arduratu da.

Bestalde, formakuntza honetan, dantzari, historiari, musikari, jantziei, tradizioei buruzko mintzaldiak eskainiak izan dira publiko zabalarentzat.

« Hitzaditza » : diktaketa euskaraz

Hiruetan hogeita hamar bat pertsonak parte hartu zuen diktaketaren bigarren edizioan. AEKren partaidetzarekin eta Euskaltzaindiaren babesarekin antolatu animazio honetan bi maila izan ziren : bata helduentzat Jan-Battitt Dirassar kazetariak proposatu testu batekin, bigarrena aldiz, eta lehen aldikotz, gazteeri proposatu Arantxa Irigoienek ariketa batekin. Momentu berean, idazleen obren aipatzeko parada izan da. Liburu andana bat eskainia izan da parte hartzaileen bultzatzeko euskaraz irakurtzen.

« Euskaldunen Argentina » erakusketaren inguruko animazioak

Pirineo Atlantikoetako kontseilu orokorrarekin ekoiztu erakusketa honek bere bidea segitzen du. Pariseko Euskal Etxean aurkeztua izan da bi hilabetez (apirilean eta maiatzean), ondotik Biarritzen iraila bukaeran Biarritzeko latino-amerikar festibalaren kariatara. Biarritzeko aurkezpenarekin batera, Noël Elorgaren mintzaldi bat eta Christian Bordaren musika animazio bat antolatua izan dira.

2.1/ « Batekmila – Euskal munduak » multimedia erakusketa ibiltaria

« Batekmila – Euskal munduak » erakusketa 2007ko ekainaren 23an estreinatua izan da Baionako Bonnat Museoko « Le Carré » erakusgelan.

Erakusketak euskararen eta euskal kulturaren ezagutzera eta galdezkatzera gonbidatzen gaitu. Lau hizkuntzatan da (euskara, frantsesa, gaztelera eta inglesa) eta 4 moduluz osatua da:

- 1. modulua : Murgiltze eremua, bidaia libreta
- 2. modulua : Topaketa kulturalak
- 3. modulua : Nortasun bizikidea, euskal uhartedia
- 4. modulua : Mediateka

Prozedura teknologiko eta interaktibo anitzek euskal munduen ikuspegi moderno eta berdingabe bat eskaintzen dute. Bidaia sentikorra, unibertso soinudun eta bisual baten bihotzean, gaurko artista, argazkilari, idazle, musikari eta errealizadore batzuen ikuspegi gurutzatuek osatu kaleidoskopo baten pare...

Erakusketa honek Euskal Herriko eta diasporako euskal munduen gaurko aipamen eleaniztuna euskaraz, frantsesez, espainolez, ingelesez eskaintzen du.

Estraburgoko Anamnesia enpresa hautatu izan da erakusketaren kontzepzioaz eta ekoizpenaz arduratzeko. Euskal kultur erakundeko lan taldea edukien antolatzeaz eta hornitzeaz arduratu da, batez ere 2007ko lehen sei hilabeteetan. Xede honetan partaidetza artistiko eta tekniko anitzetan bermatu gara, entzun-ikusen arloan bereziki.

Ondorioz erakusketa multimedia sorkuntza frangoz osatua da, eta besteak beste 17 bideo-dokumentario eta 27 lekukotasun ikusgai daude bertan, gehienak lau hizkuntzatan itzuliak.

Egitasmoa honetan partaide izan direnak (osa daitekeen zerrenda) :

- Anamnesia enpresa : eszenografia, multimedia (Estrasburgo)
- Euskal Irrati Telebista (Iurreta) : irudien mailegua.
- Euskal Media (Baiona) : irudien mailegua.
- Comédia (Baiona) : bideo-elkarrizketa batzuren egilea
- Digitalak (Lasarte) : bertsolaritzari buruzko bideo-klipa baten egilea, « 11 zubi » dokumentarioaren egilea, irudien mailegua.
- Aldudarrak Bideo : euskal dantzari eta antzerkiari buruzko bi bideo-klipen egilea, irudien mailegua.
- BAB Arte eskola : ikasle batzuren bideo-lanen aurkezpena.
- Maiana Agorrody eta Jokin Echevarria (MYJOK) : «Burp/Basque Underground Report I» bideoaren egileak.
- Isabelle Casemajor : Chillida eta Oteiza zizelkariari buruzko bi dokumentarioen egilea
- Isa Suarez : Euskaldunen presentziaz Uruguaiaren eta Argentinan burutu bi bideo-sorkuntzen egilea.
- Joana Jauregui: euskal eta berbero gazteen arteko kultura trukaketa bati buruzko dokumentarioaren egilea
- Argazkilari batzu : Isabelle Henry, Nadine Félix, Xabi Berruet, Alain Pagoaga, Gaizka Iroz, Christophe de Prada ...

« Batekmila – Euskal munduak » egitasmoaren partaide eta eduki ekarle izan diren eragile guzien izenak <http://www.batekmila.com> gunean zerrendatuak dira (Edukiak eta egileak sailean).

« Euskal munduak » erakuketa Baiona / animazioak :

- ✘ Ekainaren 22an : « Artea » antzerkia Baionako antzokian,
- ✘ Ekainaren 23an : « Euskal munduak » erakusketaren estreina : Garaziko trikitilariak, Baionan Kantuz, Or-Konpon gaiteroak eta Zpeiz mukaki taldea,
- ✘ Uztailaren 6an : « Haiek eta gu », Joana Jauregui-ren bideo-dokumentala,
- ✘ Uztailaren 27an : Evelyne Cazemajor-ekin bideo saila,
- ✘ Agorrilaren 10ean: « Amaren alabak » xiberotar taldearen kontzertua,
- ✘ Agorrilaren 24ean : Josetxo Silguero eta Borja Ramos
- ✘ Uztailaren 13an : Beñat Achiary eta Jesus Aured
- ✘ Agorrilaren 31an : « Perruketak » taldearen kontzertua

2.2/ SORKUNTZA

Euskarazko antzerkia

Le Petit Théâtre de Pain konpainia

Euskal kultur erakundeak konpainia hau lagundu du sorkuntzarako 2007an eta hedapenerako 2008an. Horrela bi artista egonaldi eginak izan dira Itsasuko sanoki gelan urriaren 8tik 20ra eta azaroaren 8tik 18ra Manex Fuchs-ek (Aulki Hutsa), Ximun Fuchs-ek (Juglarea, puta eta eroa) eta Fafiole Palassio-k (Tartean) hurrenez-hurren eskaini antzezlanentzat.

Euskal kultur erakundeak antolatu programatzaileen bilkurari esker (Garazikus, Biarritz Culture, Eihartzea, Haize Berri, Maule.....) ko-ekoizle batzu agertu dira bai eta ikusgarriaren aurre-erosketak, besteak beste ikusgarriaren prezioa apalarazi duen (400€) EKeri eman hedapenerako dirulaguntzari esker. Egondialdiaren bigarren fasea Baxe-Nafarroan iragan da eta sorkuntzak otsailan hasi dira.

« Baionan bizi » antzerkia

Hiru Puntu elkarte

Antton Lukuk idatzitako komedia, gazteek etxebizitza baten atxemateko dituzten arazoak aipatzen dituena eta bide batez gure jendartearen akatsak agerian uzten dituena. Taula-zuzendaritza : Iñaki Etxeleku eta Amaia Etxandi. Antzezleak : Laida Etxemendi, Nora Arbelbide, Jenofa Oillarburu, Iñaki Berrokoirigoin, Iban Ruspil eta Laurentx Urrutia.

« Eñaut Elizagarai » pastoral

Gamere-Zihigako biztanleek aurkezturik

Bertz Xiloa elkarte

« **Eñaut Elizagarai** » pastoralaren sorkuntza eta hedapena uztailearen 29an eta agorrilaren 5ean Gamere Zihigan. Idazlea: Junes Casenave-Harigile. Errejenta: Jan-Pierra Rekalt. Kantarien kudeaketa : Jean Louis Bidabe. Jauntziak : Erramun Garcia.

« Dinbili danbala »

Aintzina Eskiula elkarte

« *Dinbili danbala* » dantza sorkuntza, urteko lau sasoietan oinarritua. 35 jokolari heldu, 10 haur, 12 musikari. Koreografoa : Catherine Arcanuthurry. Koro zuzendaria : Sophie Larrandaburu.

Emanaldiak : urriaren 27an eta 28an Eskiulan.

« Izar bide » dantza sorkuntza

Lagunt eta maita elkarte

« Izar bide », Euskal diasporaren erbesteratzea dantzen eta kantuen bidez kontatzen duen ikusgarriaren sorkuntza.

Lehen emanaldia : Paueko Zénith gelan, azaroaren 17an.

«Ufaka Zanpaka» musika eta dantza ikusgarria

Errobiko Kaskarotak elkarte

« *Ufaka Zanpaka* » dantza eta musika sorkuntza : 25 perkusiolari, gaitero eta esku-soinu joile bat. Musika egilea : Beñat Amorena – Dantza sorkuntza : Jose Cazaubon eta Ainhoa – Jantziak : Dominique Lacoustille – Argiak : Roger Hirigoyen.

Ikusgarri honen laguntzaileak : Thierry Truffaut eta Claude Labat.

Michel Sendrez-en musika sorkuntza

Baiona Kostaldearen Eskualdeko Orkestrak, EKE-ren partaidetzarekin, Michel Sendrez ereslariaren bi obra berri aurkeztuko ditu apirilaren 27an, Donibane Lohizunen. "Lapidaire" izeneko sorkuntza euskarara itzuliak izan diren Jacques Lacarrière-ren olerkietan oinarritzen da.

Euskal kultur erakundearen partaidetzarekin, Baiona Kostaldearen Eskualdeko Orkestrak kontzertu espiritual bat antolatzen du, besteak beste Haydn-en "Salve Regina", Brahms-en "Schicksaislied" obrekin, eta Michel Sendrez ereslariaren bi sorkuntzekin : "Libera me" - "Lapidaire". Azken obra garaikide honentzat, ereslaria goiargitu da Jacques Lacarrière idazlearen olerkietaz, hauek gertakariarentzat Pantxoia Etchegoin-ek euskarara itzuli dituelarik.

Lehen kontzertua Donibane Lohizuneko elizan iragan da 2007ko apirilaren 27an, CNR-eko koro mistoarekin (zuzendaria : Laetitia Casabianca) eta Maialen Estecahandy irakurle artistarekin.

Ipuina : Koldo Amestoy eta Pantxix Bidart

Dariola elkarte

« *Aneta Bokaleko* » ikusgarriaren sorkuntzaren prestakuntza. Artistak : Koldo Amestoy eta Pantxix Bidart. Gaia : Bokaleko Aneten kondaira, Koldo Amestoy-ek moldatu duena. Testu kantatuen musika : Pantxix Bidart.

Argi jokoak : Marc-André Nicolao

Dantza garaikidea : « Lodikroko »

Cie Elirale elkarte

« **Lodikroko** » Amaia Hennebutte-Millard-en liburua oinarritzat hartuz, dantza sorkuntza bat hurrei zuzendua. Euskarazko ikuskizuna.

Dantzaria : Célia Thomas – Antzerkilaria : Joxelu Berasategi – Musikaria : Jesus Aured – Koregrafia : Amaia Hennebutte-Millard eta Panxika Telleria – Ornidurak : Annie Onchalo.

Ohiko dantza : « Senpereko sorginak »

Zirikolatz elkarte

« **Senpereko sorginak** » dantza sorkuntza, Zirikolatz taldeko dantzari helduek emanik, uztailaren 5ean, Senpere Inharrian.

Musika sorkuntza : « Dong ! Keinuka ilargiari »

Cie Lagunarte elkarte

« Dong, keinuka ilargiari » sorkuntza artistikoa

Parte hartzaileak : hiru musikari eta trapezista : Pantxix Bidart, Paxkal Indo, Christophe Hiriart, Laetitia Amilibia et Toni Casalonga (Eszenografoa). Gaia : ezkilatik ateratzen diren soinuak, sinboloa bai eta ere horri lotuak diren bozak, kantuak. Artista egonaldia : otsailaren 8tik 10ra Auritzen.

Bideo sorkuntza : Basque Underground Report ou « BURP ! »

My Jok elkarte

BURP Underground Report 21 minutuko euskarazko dokumentala da (azpigituluekin frantsesez, gazteleraz eta ingelesez). My Jok Worl SL-ek egin du eta Euskal kultur erakundeak ko-ekoiztu du.

Ideiaren eta kontzeptuaren sortzaileek, Maiana Agorrody-k eta Jokin Etcheverria-k bost "balentria" filmatu dituzte :

- ARTI burper-ak (Larزابale)
- POPORS burper-ak (Donibane-Lohizune)
- MARKO burper-a (Hazparne)
- BKBO burper-ak (Sara)
- METALAREN SEMEAK burper-ak (Maule)

BURP Underground Report Euskal kultur erakundeak ekoiztu "Batekmila - Euskal Munduak" erakusketan sartua izateko egin da. Erakusketaren estreinaldia ekainaren 23an egin da Baionako Carré Bonnat erakustokian.

Hiru hitzordu baziren :

Donibane-Ziburuko Gaztetxean apirilaren 21ean, 21:30etan

Donaixtiko Bota Gaztetxean apirilaren 27an, 21:30etan.

Euskal Herria Zuzenean festibalean, ekainaren 29 eta 30ean eta uztailaren 1ean.

2.3/ Sorkuntza : euskal literatura

Liburua : « Hatsaren poesia »

Hatsa elkarte

« Hatsaren poesia » olerki liburuaren plazaratzea eta olerki egunaren antolamendua apirilaren 1ean Senperen.

« Maite ditugun olerkiak » sailean, hilabetero olerkari bat gomiatu eta berarekin ikuskizun poetiko bat antolatua izan da.

« Maiatz » aldizkaria

Maiatz elkarte

« Maiatz » aldizkariaren argitalpenerako laguntza : 44 eta 45. aleak

Idazleak : Iraultza Partarrieu, Jakes Sarraillet, Joseba Aurkenerena, Itxaro Borda, Iban, Zaldua, Luisa Giltzu, Luigi Anselmi, Marikita Tambourin, Mattin Irigoien, Itziar Madina, Itxaro Borda eta Lucien Etxezaharreta, etabar.

Euskarazko liburuak haurrentzat

Gatuzain elkarte

Haurrentzat egin euskarazko liburuaren argitalpena.

Durangoko Liburu eta disko Azoka

Durangoko Azoka antolatzen duen Gerediaga elkartearen partaidetzarekin, Euskal kultur erakundeak Iparraldeko 10 argitaletxe toki berean bildu ditu (Agorila, Maiatz, Gatuzain, ZTK, SAMB, Hatsa elkarte, My Jok SARL, Amanita Records, Ikas eta Euskalzaleen biltzarra) diru, teknika eta komunikazio gaiak erraztuz (Azokari eta argitaletxeei zuzendu 8000 agerkari inguru argitaratu izan dira). Bestalde, bakoitzaren berritasunak aurkeztuak izan dira eta bi talde (Elaudi eta Le Garazi philanthropik orkestra) zuzenean aritu dira Maiatz aldizkariaren 25. urtemugakari egin omenaldiaren inguruan. Parte-hartzaileek operazioa baikorki baloratu dute eta 2008an berriz eginen da.

3.1/ Euskal artisten hedapena bizkorki sostengatu

Euskal artisten hedapena













Kalitateko euskal kultura adierazpena iraunkorki sustatzeko, beharrezkoa da beraz sareak azkartzea eta biderkatzea elkarte eta erakunde partaide desberdinekin. Bestalde, harreman bereziak asmatu behar dira Frantzia eta Europa mailan sail hortan berezituak diren hedapen egituretan oinarrituz.

Ekintza konkretu batzuen bidez emaitzak ekarriko dituen epe luzerako dela ikusirik, euskal kulturaren hedapena lehenik tokian berean eta Akitanian azkartu behar da, diren baliabide zentroyen bitartez (OARA, adibidez) eta ondotik Frantzian eta Europan, ikusketa lan handi bati esker.

Bestalde, partaidetza modu berriak asmatu behar dira kostaldeko eta barnekaldeko kultura egituren artean : funtzionamendu elkartasunak eta ahaleen elkartzea bai eta osagarritasun bat obra artistikoen hedapenean.

Gainera, mugazgaineko harremanak jarraitu eta azkartu behar dira egiazko trukaketa artistiko eta kultural politika izan dadin, udalen kultura zerbitzu eta euskal kulturaren aldeko elkarrekilako partaidetza batean oinarritua.

Euskal kultur erakundeak lagundu dituen euskal artistak :

-  Gwenaëlle Bidondo,
-  Xabaltx,
-  Maialen Errotabehere,
-  Kantiruki,
-  Asisko Urmeneta,
-  Christian Borda,
-  Soinubila elkarte,
-  Itzal Aktiboa elkarte,
-  Xendarineko ahizpak
-  Perruketak
-  Sustrai Kolina
-  My Jok...

3.2/ www.eke.org euskal kulturaren ataria

Ataria egun guziz eguneratzen dugu, Iparraldeko euskal kulturaren bizitasunaren miraila izan dadin. Hiru tresna nagusi ditugu horretarako, albistegi bat, berri laburren zerrenda bat eta agenda partekatu bat. Astean behin agendako bilduma bat eta albiste bat igorriak zaizkie gure hedapen zerrendari harpidetuak direnei. Mezu elektronikoko horien itxura berritua izan da 2007an erakargarriagoa izateko gisan.

Joan den uztailetik geroz berri laburrak zabaltzen ditugu ere ataritik beste motako albiste batzuren plazaratzeko (lanpostu-deialdiak, argitalpen berriak...).

2007an atal berri batzuk estreinatu ditugu ere :

● **www.batekmila.com webgunea**

Erakusketa ibiltaria aurkezten du bereziki, bisitarien ekarpenak eta erakusketaren inguruko animazioak agerian emanez. Erakusketaren zombait bideo-zati ikusgai daude bertan.

● «Euskaldunen Argentina» erakusketaren sareratzea

Erakusketaren testuak sareratu ditugu hiru hizkuntzatan (euskaraz, gazteleraz eta frantsesez), baita argazkiak, dokumentuak eta bideoak.

● « Xaharren urratsetik » bloga eta podcastina

Euskal kultur erakundeak blog berezi bat apailatu du. Beren herria hobeki ezagutu nahian adineko pertsonengana joan diren Donibane Lohizuneko haur batzuren lana laburbiltzen du. Euskarazko lekukotasun baliosak entzungai daude bertan...

<http://xaharren.urratsetik.eke.org>

2007an kultura animazio zombait segitu ditugu ere hurbiletik sareko baliabideak erabiliz, besteak beste:

● **Korrika 2007 Ipar Euskal Herrian**

Korrika 15.ak Ipar Euskal Herria zeharkatu du 2007ko martxoaren 30ean eta 31n. Euskararen aldeko lasterkaldiaren aurkezpena, hitzordu nagusien zerrendatzea eta zeharkatutako Iparraldeko herrien kokatzea egina ezin da www.eke.org-en aplikazio berezi baten bidez.

● **Hitzaditza, euskarazko diktaketa**

Sarean trebatzeko aplikazio bat sortua izan da. Izen-emaite gehienak sarearen bidez bildu dira. Emaitzak eta lehiaketako argazkiak atariaren bidez zabaldu dira.

Zombait datu :

- ▶ 103 albiste euskaraz eta frantsesez argitaratuak
- ▶ 576 gertakari kultura agendan sartuak, bi hizkuntzatan
- ▶ 60 albiste labur argitaratuak (2007ko uztailetik goiti)
- ▶ 157 200 bisita 2007an, 430 bisita egunero
- ▶ 5800 bisita www.batekmila.com gunean 2007ko uztailetik abendura, 27 bisitari egunero
- ▶ 497 harpidedun frantsesezko hedapen-zerrendari
- ▶ 767 harpidedun euskarazko hedapen-zerrendari

Azpimarra dezagun ere Euskal kultur erakundearen atariak Antic Pays Basque elkarteak bultzatu Euskal Herri Numerikoa labela erdietsi duela 2007an, Informazio eta Komunikazio Teknologien inguruan daraman lanarentzat.

Euskal irrati emankizunak

Euskal Irratiak elkarte

Euskal irratiak elkarteak lau irrati babesten ditu. Hauek dira « Gure irratia », « Irulegiko irratia », « Xiberoko botza » eta « Antxeta » irratia.

Emankizun hauek egiten eta zabaltzen dituzte :

« Gure arbasoak », « Gure bazterrak », « Hinki hanka », « Punttuka » eta « Musikaren arloa », euskarazko emankizunetarako laguntza.

3.3/ Euskal Herri barnekaldeko kultura egituren egitasmoak lagundu

Baxe-Nafarroko herri antzokia

Garazikus elkarte

- ▶ Hedapena, ikusgarri ekoizpenak, artista egonaldiak ... :
 - « Anaiatxo berezia » artista egonaldia eta sorkuntza
 - « Zine euskaraz » : Korrika kulturalakari, « Kutsidazu bidea, Ixabel », « Nomadak TX », « Aupa Etxebeste » filmen aurkezpena,
 - Hedapena haurrentzat : « Anaiatxo berezia », « Taun taun », ... Hedapena denentzat : « Dale recuerdos » (Euskal kultur erakundeko bilketa proiektuari lotua), « Garazi Philantropik orkestra », « Bost gehio », « Nun da panderoa ? » ikusgarria, « Ufaka zanpaka » ikusgarria.
 - Euskarazko antzerki taillerak eta animazioak eskoletan.
- ▶ Nafarroako arte garaikideen 5. biurterokoa. 35 artista Donibane-Garaziko herrian. Maiatzaren 25etik ekainaren 3ra (kontzertuak, zine-mintzaldiak, erakusketak, bisita gidatuak).

Haize Berri kultur etxea

Euskal kultur programazioa urte guzian (ondarea, literatura irrati bidez, artegintza) :

- ✘ Euskal literatura :
idazketa tailerrak euskaraz urte osoan. Partehartzaileak : Asier Altuna, Harkaitz Cano, Jon Andueza, Koldo Amandoz, A. Goenaga, A. Epalza...
Euskarazko liburu irakurketa irratietan. Irakurleak : Aurelia Arkotxa, Itziar Madina, Antton Harignordoquy, Txato, Lurdes Oinederra.

- ✘ Arte plastikoak : “Marraskiri” otsailaren 23tik maiatzaren 19ra. Mikel Dalbret-en erakusketa : “Harri borobilak” apirilaren 27tik maiatzaren 20era. “Uda erakusketa” : Arte garaikidea baserrian, erakusgelan eta herriaren leku desberdinetan : Koldobika Jauregi - Xabier Moras eta 11 artista (ekainaren 22tik agorrilaren 19ra).
- ✘ Antzerkiaren hedapena : « Baionan bizi » otsailaren 11an, “Kaputen kanta” martxoaren 9an Izuran.
- ✘ Lau mintzaldi udan.

Hebentik elkartea

- ✘ “**Etxebarre 007**” : Hebentik elkarteko hamar sorkuntza : 5 ikusgarri, 4 erakusketa eta su bat. Kantu eta soinu sorkuntza, olerkia, Etxebarreko biztanleekin erakusketa. Aurkezpenak : uztailaren 7an eta irailaren 1ean Etxebarren.
- ✘ “**Xiberoko argazki soiñularia**” : karta postala soinudunak Xiberoko ondarea ezagutzeko.
- ✘ “**Hebenko eta hanko**” : Mixel Etxekopar / Pierre Vissler Xiberotar musikaria eta jostakinaren arteko topaketa (« Hebenko ») eta "Julot Torride", frantses kantore humoretsua (« Hanko »). Emanaldia uztailaren 13an Larraiñen iragan da.

Eihartzea elkartea

Euskal kultur programazioa urte guzian (animazioak, hedapena, sorkuntza).

- ✘ « **Baten bila** » zikloan besteak beste : Niko Etxart eta Xabaltx urtarrilaren 26an, Mixel Etxekopar eta Pierre Vissler otsailaren 23an, Oierkoren txaranga uztailaren 27an, bertsu eta arrabita Ortzi Oyarzabal eta Amets Arzallusekin...
- ✘ **Euskal kultur astea** Hazparden irailaren 23tik 29ra : bertsularitzaz erakusketa, Daniel Landart-ekin mintzaldia, « Kutxidazu bidea, Ixabel » filma, bertsu saioa, « Galerianoaren kantua »ren inguruan, herriko artisten obren aurkezpena (tindua, harria, zura...), Piarres Xarritonekin Bordaxuriz mintzaldia .

3.4/ Proposamen iturria kostaldeko hirientzat

Orain dela urte zenbait hasirik, Euskal kultur erakundeak proposamenak egiten dizkie kostaldeko hiriei euskal kulturaren hobeki ezagutzeko eta beren programazioetan sartzeko, hala nola kultur asteak, kontzertuak, hitzaldiak antolatuz.

Donibane Lohizune

« Euskal kultura argitan » astea

Zazpigarren aldikoz, Herriko kultura zerbitzuak eta Euskal kultur erakundeak kultur aste bat antolatu dute Donibane Lohizunen otsailaren 20tik 25era. Egitarauan : animazio desberdinen artean, bideo-fima bat « Le Züzülü » deitua eta Euskal Herriko muebleak hobeki ezagutarazten dituen, « Katte bat eta kitto » hurrekin apailatu ikusgarria eta Joseba Tapiaren kontzertua.

Hendaia, Abbadia jauregian :

« Kaperan, a kapela »

« *Kaperan a kapela – 4 saisons, 4 concerts* », zikloa 2004an hasiak segida bat ukan du Abbadia jauregian. Partaideak dira : Hendaia Herria (Kultur elkarte), Antoine d'Abbadie Fondazioa eta Euskal Kultur erakundeak.

Hona noiz eta nor pasatu den :

- Martxoaren 18an : Kantiruki taldea.
- Apirilaren 15an : Bidaia bikotea (Caroline Phillips eta Michel Ducau).
- Urriaren 14an : Bertsulariak : Sustrai Kolina, Xabi Paia, antzerkilaria : Ander Lipus.
- Abenduaren 9an : Izarrak taldea eta Jean-Louis Laka.

Biarritz : kultura animazio ezberdinak mediatekan

Hamar animazio antolatua izan dira mediatekan. Aldi oro, Euskal kultur erakundearen esku da mediazioa eta arartekolaritza artistekin.

- ✘ Urtarrila : « Euskarazko lehen emankizunak telebistan : filma eta lekukotasuna » : Maite Barnetche zenari omenaldia.
- ✘ Otsaila : Euskal kantuak Pil Pil taldearekin (Bordagaray eta Michel Thicoipé)
- ✘ Martxoa : Mintzaldi-diaporama euskaraz « Ihauteriak eta gizartea Ipar Euskal Herrian », Xabier Itçaina ikerlariaren eskutik
- ✘ Apirila : “Ahozkotasuna”. Mintzaldia Andoni Egaña bertsulariarekin eta Antton Lucu antzerki idazlearekin.
- ✘ Maiatza : mintzaldia « Euskal antzerkiaren historioaz » Daniel Landart-ekin Mintzaldiaren ondotik, Gérard Bagardie-k zuzendu « Maite dugulako » antzerki taldeko 7 jokolariek Daniel Landart-en obratik hartu lau antzerki zati eskaini zituzten.
- ✘ Maiatza : « Euskal munduak » Pantzo Hirigarai-en eskutik. Saio omoretsua, « Batekmila Euskal munduak » erakusketaren kari.
- ✘ Ekaina : Euskal kantuak Haurrock taldearekin.
- ✘ Iraila : « Lastozko ihesguneetan », Auxtin Zamorak eskaini olerki eta argazki diaporama. Ondotik solasaldi bat publikoarekin.
- ✘ Urriaren : mintzaldia ahozkotasunaz Andoni Egaña eta Antton Lucurekin
- ✘ Azaroa : Euskal kantuak Jean Bordaxar laukotearekin.
- ✘ Abendua : Ipuin eta bertsu : Kattalin Sallaberry eta Jokin Irungaray ipuin kondalari, Patxi Iriart, Ekhi Erramundeguy eta Maddalen Arzallus bertsutan.

Bestalde, euskarazko liburu batzuen aurkezpenak egin ditugu beren idazleekin Donapaleuko, Kanboko, Hazparneko mediatekan (Itziar Madina « *Beste Eguzkia* »-rekin, Luzien Etxezaharreta « *Inter Porcos* » agerkariarekin eta Maiatz agerkariarekin, Nora Arbelbide « *Goizeko zazpiak* »-ekin, Gaby Etchebarne « *Paroles de bergers* »-ekin).

Bidarte : partaidetza berria

Euskal kultur erakundeak proposaturik Bidarteko Herriak onartu du « Euskal bide arteak – Journées de la culture basque » antolatzea, maitzaren 4 eta 5an. Egitarauan : Anje Duhalden kontzertua « Errobi » talde ohiaren kantuekin (hitzak : Daniel Landartenak). Eta « Kutsidazu bidea, Ixabel » filma. “Euskal Herriko aurpegiak » erakusketa Herriko Etxeko sartzean ezarria zen eta hamar bat egunez han egon da.

3.5/ Mugazgaineko harremanak indartu

Eusko Jaurlaritzako kultura sailaren eta Euskal kultur erakundearen arteko urteaskotarako hitzarmena

Eusko Jaurlaritzak bere Kultura Departamenduaren bidez sostengatzen ditu mugazgaineko kultura trukaketak. 2007an, Euskal kultur erakundeak bi partaide berriekin ekintzak eraman ahal izan ditu : Gernikan (Bizkaia) eta Oiartzunen (Gipuzkoa).

Gernika :

- Martxoaren 24an, larunbatez : « Burrunka » eta « Hartza iguzki » ikusgarria (ihauteriko dantza eta musika berriak) ;
- Martxoaren 25ean, igandez : Kuxkuxtu txaranga, karrikaz-karrika ;
- Apirilaren 27an, ostiralez, bonbardaketaren hirurogeita hamargarren urte mugakari, Garazi eta Baigorri eskualdeko 90 gaztetxo Gernikan izan dira eta « Gernika gogoan » ikusgarria eman dute, dantza eta kantua uztartuz. Ikusgarri horren bidez omenendu nahi izan dituzte 36eko gerla denboran Gernikatik ihesi jin ziren haurrak eta Donibane Garaziko La Citadelle kolegioan egon zirenak.
- Martxoaren 28an, larunbatez : Niko eta Dominika Etxart & Robert Larrandaburu kantuz.

Oiartzun :

Oiartzungo herriaren eta Euskal kultur erakundearen arteko partaidetza euskal antzerki artxiboak direla eta hasi da bereziki.

Apirilaren 17an, asteartez

- Ipuinaldia : Xan Errotabehere kontalariarekin - Bi saio ikastetxean (11-12 urtekoentzat)

Apirilak 20an, ostiralez

- Kontzertua : Zuberoako kantariak Niko eta Dominika Etxart & Robert Larrandaburu
- Apirilaren 22an, igandez :
« Dantza Piko » – Denak dantzan ! - Patxi eta konpania

Apirilaren 24an, asteartez

- Antzerkiaz elkarrizketa. Hizlaria : Daniel Landart. Galdezkatzailea : Pantxika Maitia. Bukaeran : Biarritzeko «*Maite dugulako*» tailerekoek 3 zati antzeztu dituzte.

Apirilak 27, ostiralez

- Kontzertua : Bidaia bikotea (Carolina Phillips eta Mixel Ducau).

Apirilaren 28an, larunabatez

- Iparraldearen bisita - Goizean : Baiona hiriaren bisita (Lucien Etxezaharreta gidari) Eguerdian : Bastida herriaren bisita eta bazkaria. Arratsaldean : Isturitze eta Otsozelaiko harpeen bisita.

Donostia (Koldo Mitxelena kulturunea)

- Martxoaren 8an : Beñat Achiary / Jésus Aured ;
- Martxoaren 15ean : Maialen Errotabehere – David Usabiaga et Philippe Albor;
- Martxoaren 22an : « Euskal antzerkiaz » - Daniel Landart mintzo Pantxika Maitiak galdezkatu et Biarritzeko « Maite dugulako » taldeak eman 4 antzerki zati.
- Martxoaren 29an : Anje Duhalden kantaldia, bakarrik « Errobi » taldeko kantuak emanez (hitza guziak : Daniel Landart).

Andoain (Bastero kultur etxean)

- Urriaren 18an, goizez, 3 saio kolegioko ikasleentzat
« Lastozko ihesguneetan » diaporama poetikoaren aurkezpena. Egilea : Auxtin Zamora.
- Urriaren 20an, egun osoan :
Donibane Garaziko bisita. Berrogei bat jende etorri dira autobusez.
Bazkal ondoan, Jean-Michel Bedaxagar kantuz arizan da.
- Urriaren 23an, goizez, (2 saio)
« Ipuinaldia », Xan Errotabehere kontalari
- Urriaren 26an, 22:00etan
Bidaia bikotearen kontzertua (Karolina Phillips eta Mixel Ducau)
- Urriaren 27an, goizez eta arratsaldez
Kuxkuxtu txarranga karriz-karrika (10 musikari eta kantari).

3.6/ Ikusgarrigintzaren hedapena sustatzea **Antzerkia – dantza - musika**

Ikusgarrien ikustea Biarritzen (Colisée), Baionan (Antzokia) eta Angelun (Baroja zalditegietan) - otsailaren 6an

Euskal eta okzitaniar ikusgarrien ikuskatze egun baten karietara Kukai-Ttanttaka konpainiaren «1937» ikusgarria programatua izan da Biarritzeko Colisée gelan, «Batekmila» ikusgarria Baionako Antzokian, Chin Na Na Poun eta Duo Tras (ozkzitanoak) Barojako Zalditegietan. Euskadiko eta Akitaniako hogeita hamar bat programatzaile bildu dira OARA eta Baionako Eszena Nazionalaren partaidetzarekin antolatu egun horretan.

«1937» ikusgarria aitzin, sentsibilisazio lan bat egina izan da, hala nola ikuspegi historiko batekin. Alabaina, ikusgarri honek euskal haur umezurtz batzuen erbesteratzea kontatzen du, Gernikaren bonbardaketaren 70. urtemugakari. Bernat Etxepare lizeoko 100 ikasle baino gehiagok parte hartu dute ikusgarrian. Aste bat berantago, Jon Maia koreografoak ikasleen gana izan da ikusgarriaz mintzatzeko. Biziki trukaketa aberatsak izan dira. Bestalde, Euskal kultur erakundeak proposaturik, «Batekmila» ikusgarriari buruzko sentsibilisazio saio batzu izan dira ere Baionako eszena nazionalaren partaidetzarekin. Horrela, Xan Errotabehere ipuin-kontalaria euskaraz eta frantsesez aritu da Bidaxuneko, Bokaleko (Henri Barbusse) eta Donapaleuko (Léon Bérard) kolegioetako 202 ikasleren aitzinean. Bide batez, ikusgarria hobeki ulertu ahal izan dute eta euskal mitologiari buruzko xehetasun batzu ukan dituzte.

«Batekmila»

Euskal Herriko ipuinetan eta leiendetan oinarritu ikusgarriaren ibilaraztea. Théâtre du Rivage konpainia, Beñat Achiary (ahotsa) eta Gaël Domenger (dantza). Ekoizpena : Euskal kultur erakundea. Ko-ekoizpena : Baiona eta Akitania hegoaldeko eszena nazionala, Ballet Biarritz / Dantzaz eta Baionako Kontserbatorioa.

- Baionako Antzokia, otsailaren 6a, asteartea.
Gomitatuak izan ziren Akitaniako eta Euskadiko programatzaileekin antolatu ikusgarri ikuskatze egun baten karietara (Baionako Eszena Nazionalaren eta OARA-ren partaidetzarekin).
- Mauleko Maule Baitha gela, otsailaren 24a, larunbata (Mauleko Herriko Etxearen partaidetzarekin).

« Kaukasiar kreazko borobila » antzerkia

Théâtre des Chimères elkarte

« Kaukasiar kreazko borobila » antzerkiaren ibilaraztea 2007an : Baigorri, azaroaren 24 eta 25ean – Narbonne herrian azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean - Tarbes hirian abenduaren 4 eta 5ean - Bordelen (TNBA) abenduaren 8tik 14ra.

Musika : Euskal gaualdia Molière Scène d'Aquitaine gelan

Office Artistique de la Région Aquitaine

Urriaren 13an, larunbatarekin, Mixel Etxekopar eta François Rossé-k bai eta Bilika bikoteak ere, gaualdi horren menua osatu dute euskal musika sorkuntza garaikidea baloratzuz.

Kontzertuaren ondotik, Idoki ekoizpenak dastatu ahal izan dira, Herlauz' band txarangak alaiturik. Gaualdia biziki arrakastatsua izan da gela mukurru betea baitzen, hainbestearino non jende batzuk kanpoan egon behar ukan zuten. Musika emanaldi horien maila goraiatua izan da eta hitzordua hartua dute ondoko urtearentzat.

Biarritz

Biarritz Culture elkarte

« *Bi harriz lau xori* » - Euskal Herriko eta kanpoko adierazpenen astea – Martxoaren 22tik 24ra.

Martxoaren 22an, Atabalen :

19:00etan : Cantau Lizeoko ikasleek, *Les Imprévisibles* taldeak lagundurik, Atabaleko eremuari bizi berri bat ematen diote musika eta koreografia zirriborroak sortuz.

20:00etan : Les Imprévisibles izeneko bat-bateko musika eta dantza taldeak Euskal kultur erakundeak eraman Euskal Herriko arkitektura eta bizilekuari buruzko hausnarketan parte hartu du. Gai hori bere gain hartuz, taldea Atabaleko eremuaz jabetu da noragabeko harat-honatak eraikinean berean asmatuz, publikoa bertako arkitektura (berr)ezagutzera gonbidatzeko gisan. Sustrai Kolina bertsolariak parte hartu du emanaldian. Publikoak arras gustukoa ukan du saioa.

Iparraldeko Konpilazioa

Lanetik Egina elkarte – *Atabal* – *Crédit Agricole fundazioa* – *Gazteriaren eta Kirolen Departamenduko Zuzendaritza* - *CAEM* – *KDRL*

Gaurko musika egiten duten tokiko taldeen alde, Euskal kultur erakundeak 3. Iparraldeko Konpilazioan parte hartu du, bereziki euskal taldeek bilduma horretan parte har dezaten. Emaiza baikorra izan da zeren eta hautatu 12 taldeetarik erdia euskalduna baitzen. Talde horiek grabaketa profesional bat egin ahal izan dute Amanita estudioetan. Beren kantua 2000 aletan banatua izan den CD batean agertu da eta gainera interneten bidez telekargatzeko aukera izan da ere. Horretaz gain, talde horietarik batzu egonaldi batean parte hartu dute bai eta promozio kontzertu batean Atabal gelan profesionalean. Taldeen kalitatea eta egitasmoaren arrakasta ikusirik, partaideek partaidetza segitzea erabaki dute bilduma berri baten egiteko.

Gazteendako ikusgarriak

Lapurdi hegoaldeko herri elkargoa – Euskadiko antzerki sarea

SAREA deitu Euskadiko antzerki sarearen partaidetzarekin, Euskal kultur erakundeak eta Lapurdi hegoaldeko herri elkargoak hurrei zuzendu euskarazko sorkuntzen inguruko egun bat antolatu dute abenduaren 10ean, Saran, Iparraldeko eta Euskadiko programatzaileek nahiz kazetariak gazteendako zer-nolako eskaintza baden jakin dezaten. Elirale konpainiak (« Lodikroko » ikusgarria), Théâtre du Rivage antzerki taldeak (« Zoaz hegan errari » ikusgarria) eta Tentazioa konpainiak (« Eskola hutsik ») beren obrak aurkeztu dituzte Iparraldeko eta Berako eskola batzuetako hurrei. Euskadiko partaideekin egin bilana baikorra izanik, gauza bera eginga izanen da 2008an.

Bertsularitza

Bertsularien Lagunak elkarte

Bertsularitzari buruzko ekitaldien koordinaketa.

Transmizioa, saioen antolaketa (Bertsulari Ttiki, gazten txapelketa, Hernandorena saria) eta ikerketa.

Bestalde, Euskal kultur erakundeak proposaturik, Baionako Bestak haste kari, Patxi Iriart bertsulariak bertsu bat kantatu du Baionako Herriko etxeko balkoitik.

Euskal zinema

Uda-Leku elkarte

Euskarazko zine hamabostaldia irakaskuntzako hiru saretako ikasleentzat : « Ikasgela hegalaria » (7 – 11 urte) eta « Urtemuga festa » (4 – 7 urte).

Euskal ohiko dantza

IDB elkarte (lehen Euskal dantzarien biltzarra)

Euskal dantzari buruzko formazioa (taldeentzat eta irakasleentzat) eta hedapena : Dantzari Ttiki, Dantzari Gazte, Herri dantzari, Arrangoitzkeo mutxikoaren eguna, Baxe-Nafarroko mutxikoaren eguna, dantza taldeen emanaldiak Luhusoko gelan...

Txontxongilloak

Azika elkarte

- « Kontu konta zan »,
- « Herralde urdina »,
- « Barne urdina »
- « Zazpi lagun » txontxongillo ikusgarrien hedapena.

Kantua : « Kate bat eta kitto »

Lagunarte konpainia elkarte

« Katebatetakitto » ikusgarriaren hedapena :

- Martxoaren 17an, Izpuran ;
- Martxoaren 18an, Auritzen (Nafarroan).

Taula gainean, hogeita bost haur kantari dira, 8 eta 15 urte artekoak, Haur Kantu Xapelketan parte hartu zutenak, eta geroztik, « Lagunarte » konpainiako musikari-kantarien ardurapean formakuntza bat segitu dutenak. Ikasi dutenaren erakusteko « Katebatetakitto » ikusgarria prestatu dute, emanaldiaren gai nagusia telebista delarik. Kantari gazteek bi musikari badituzte aldean : Bilika bikoteko Kristof Hiriart eta Didier Ithursarry.

Kantu-testuen egileak dira : Sustrai Kolina, Amets Arzallus, Itxaro Borda, Mixel Itzaina, Kirmen Uribe, Xabier Itzaina eta Mattin Irigoyen.

Musika guziak berriak dira eta konpositorea Nadine Estève da, Marseille hirian bizi dena. Gaia telebista izanez, hastetik buru, irudiak agertzen dira, Aldudarrak Bideo taldeak filmatuak.

Maialen Torre antzerkilariak eta konpositoreak jakin izan dute haurren behar bezala kudeatzen, musika mailan Denise Olhagaray eta Pantxix Bidart laguntzaile zituztela.

3.7/ Festibalak lagundu

© « Hartzaro » festibala otsailaren 16etik 20era Uztaritzen

Herri Soinulariak elkarte

2004ko *Burrunka*, 2005eko *Hartza Eguzki* eta 2006ko *Betiko Gaita* sorkuntzen ondotik, 2007koa *Ufaka Zanpaka* deitu da. Jadanik *Burrunka* ikusgarriaz arduratu ziren Beñat Amorena eta Pierre Haira Festibaleko zuzendaria egitasmo berriaren bultzatzaileak dira.

Mestizaiaren bidetik jarraitzeaz gain, euskal doinuak munduko kantu herrikoiekin nahasten dituen musika atipiko batekin, sorkuntza berri honek ikuslea mundu "fantastiko" batera eramane du, Euskal Herriko eta kanpoko mitologia gogora ekarriz. Gainera, Claude Labat-ek eta Thierry Truffaut etnologoak sorkuntzan parte hartu dute, aditu bezala. Hamasei perkusionistek, bederatzi gaiterok eta hogeitaz dantzari osatzen dute "*Burrunka*" berri hori.

Ikusgarria aurkeztua izan da otsailaren 17an, gaueko 9etan Uztaritzeko Kiroleta gelan. Lehen partean, *Garaztarrak* taldeak "*RAP OGM*" ikusgarria eskaini du.

Beste talde anitz preziatu izan dira : Zeltiar musika Cel-3 taldearekin, funky-jazza Blackout-ekin, post-rock noise doinuak Prosper-ekin...

Aipatzekoa da ere lan handia egin dela festibala aitzin ikasleekin, ibilaldi artistiko eta kultural batzuen bidez Uztaritzeko bost eskoletan.

© « Xiru 2007 » martxoaren 30etik apirilaren 1era Gotaiñen

Abotia elkarte

Olerkiak, kantuak, eztabaidak izan dira arte mota ezberdinak eta sorkuntza garaikidea nahasten dituen Xiberoko jaialdiaren 18. edizio honetan. Aurten, lurrarekiko harremana izanen du gai nagusizat.

Norena da lurra ? "Hemen ez da lur anitz, bat baizik", dio erran berriak. Baina norena da ? Erosten duenarena, lantzen duenarena, urte guzian hortan bizi denarena ? Lurra badugu, ala lurra bagaitu ?

Hona Gotaineko Xiru festibalak egiten digun galdera.

XIRUn ikusi diren zombait artista hainbat ikusgarri, erakusketa eta hitzalditan :

Ohorezko gomita : *Vagabontu* taldea (Errumaniako tzigano-rom fanfarea)

- *Alfred Spirli* eta *Geraldine Keller* (Perkusio eta botza - Lyon - Alsazia)
- *Xavier Pinon* (argazkilaria - Parise)
- *Christian Vieussens*
- *Karidadeko Benta* (Jon Maia bertsulariarekin)
- *Suak* taldea (Piroteknia)

- *Guanes Etchegaray* (eskultorea)
- *Oiherkoren trajeriaren txaranga*
- *Amaren Alabak* (kantarisak)
- *Ainarak taldea* (kantarisak)
- *Oilarrak taldea* (kantariak)
- *Mixel Arotze* (kantaria)

☉ « Errobiko festibala » uztailaren 19tik 21era Itsasun

Herri soinulariak elkartea

Gaia : transmizioa.

XII. edizioa.

Edouard Glissant olerkari martinikarra izan da gomita nagusitzat

- Uztailaren 19an: mintzaldia Edouard Glissant eta Bernardo Atxaga hizlariekin.
- Uztailaren 20an : kontzertua : Bernard Lubat, Mixel Ducau, Atomic 2, Dominique De Barros, Edouard Glissant.
- Uztailaren 21ean : kontzertu eta mintzaldiak.

☉ « Gaita eguna »

Herri Soinulariak elkartea

- « **Betiko gaita** » kontzertua azaroaren 9an Biarritzen La Nehe de Dax taldea eta Uztaritzeko gaiteroekin.
- « **Ufaka zanpaka** » Biarritzen, azaroaren 11an.
Lehen partean : Otsagabiako dantzak Uztaritzeko Izartxo taldeko helduekin.
Aragoiko dantzak Gallureko taldearekin.

☉ « Euskal Herria zuzenean » - ekainaren 29an, 30ean, uztailaren 1ean Idauze Mendin

Euskal Herria Zuzenean elkartea

Kontzertuak : Tokyo Ska, Paradise Orchestra, Anestesia, Fermin Muguruza, The Skatalites, Les ogres de Barback, Kepa Junkera, Mouss & Hakim, Delorean, Gojira, Karidadeko benta, Gozategi, Zpeiz mukaki, Burp video sound system, Xiberoko dantzariak...

☉ « Poteo Atipikoa » Heletan

Traboules konpainia elkarte

Poteo Atipikoaren laugarren edizioa Heletan iragan da urriaren 1etik 6ra.

« Hedapen arruntenaz bestalde, artisten etorrera luzatzen saiatzen gara (egonaldiak) konpainien arteko, baina ere herritarrekilako, ikusleekilako eta gazteekilako trukaketen sustatzeko. Bestalde saiatzen gara konpainia horiek tokiko edo kanpoko artista « atipikoekin » harremanetan ezartzea, publikoarekin partekatu lan artistiko baten egiteko asmoz. (...) « Poteo Atipikoa » antolatzen dugu sorkuntza hori oso-osoki Traboules konpainiaren egitasmoaren parte baita.

☉ « Mai en scène » festibala, maiatzaren 9tik 12ra Maulen

Tokia théâtre elkarte

Karrika antzerkiak, « Besteak ez bezalako anaia », « Tzimi » (Traboules konpainia), « Borroka » kantu taldea (Pantxix Bidart eta Kako Cavalié)...

☉ Txontxongillo festibala Hendaian azaroaren 19tik 25era

Akelarre elkarte

18. txontxongilo egunak.

Ikusgarriak : « Itxo... txoin » (Gar taldea), « Kukubel » (Kukubiltxo), « Les tambours de feu » (Deabru beltzak), « Anaiatxo berezia » (Ixtorio pollitak).

Eskolendako : « Ku-ku aitonaren erlojua » eta « Beti lagun ».

☉ « Dilin dalan » festibala Heletan maiatzaren 19tik 20era

Pestacles et compagnie elkarte

Haur ttipien bi hizkuntzetako taillerak. Tindua : Irene Borda eta Dominika Etxeberry-rekin. Ipuin kondatzea Amaia Urruty eta Kattin Amestoy-ekin. Txontxongilloak, Amikuzeko armonia, soinudun eskulturak...

☉ « A voix haute » festibala Bagnères-de-Bigorre herrian abuztuaren 11tik 15era

Einstein on the beach elkarte elkarte

« A Voix haute » festibalak euskal kantuari toki garrantzitsua ematen dionez, EKEk karia hortara programatuak izan diren Bilikaren eta M. Oihenart & J. Läderach-en kontzertuak diruz lagundu ditu. Bestalde, EKEk « Euskal Herriko Aurpegiak » euskarria festibalaren esku utzi du abuztuaren 10etik 21era.

Gainera, EKEko zuzendaria den Pantxoa Etchegoin-ek « Kantuketan » CD kutxa aurkeztu du festibal garaian.

3.8/ Euskal kultura herrietan sustengatu

○ **Airitze** – Euskal kultur elkarte (Foyer rural) :

- Urriaren 21ean – « Kontalariak » : Michel Mendibil, Alexandre Bordagaray, Piarres Petoteguy, Xan Errotabehere, Angèle Añorga
- Azaroaren 18an – Kantaldi : Joseph Etchebarne, Jean-Louis Harignordoquy, Angèle Añorga, Kattalin Indaburu, Gaëlle Larroude, Etxart ahizpak.
- Abendoaren 2an – Mintzaldia Jean-Claude Larronde historialariarekin Gernika 70. urte kari.

○ **Azkaine** – Turismo bulegoa elkarte

« Pastore lore » ekitaldiaren antolaketa : Azkainen, urriaren 14ean : animazio kulturalak, dantzak, erakusketak, Anje Duhalde-n kantaldia...

○ **Bardoze** – Gaztetxea elkarte

Udako arte erakusketa, ekainaren 23tik uztailaren 8ra Bardozen : « Clémence de la Taille » eta « Jofo »

○ **Baiona** – Hiruki elkarte

Euskal kultur hedapena Baionako hirian : antzerkia, kantua, « Olentzero » bestakari Baionako karriken airostea abendoan.

○ **Biriatu** – Betizu elkarte

Sustrai Colina eta Amets Arzallus bertsulariak Biriaturko ihauterietan, otsailaren 17 eta 18an.

○ **Ezpeleta** – Begi argi elkarte

Udako erakusketa kolektiboa Ezpeletako gazteluan, uztailaren 26etik agorrilaren 23ra. Gaia : « Argia »

○ **Makea** – Jostakin elkarte

« Mugari tiro » eta « Ardi moztia », bi euskal antzerki sorkuntza, Makeako gazteek emanik uztailaren 21ean.

○ **Urdiñarbe** – Bil xokua elkarte

Musikaren besta Urdiñarben, maiatzaren 16etik 20era : Arrolako dantzariak, Aitzindariak, Baigorriko gaiteroak, Officina Zoe (Italia), Chet Nunêta (polifonia), Etxegoihen ahizpak, Louloudjine, Zpeziz mukaki, Burrunka, Châkdor (Acadie) eta Gaston le fervent taldeak

○ **Donapaleu** –Zabalik elkarte

« Otsail ostegunak » deitu saileko mintzaldiak :

Otsailaren 1ean : “Nafarroa eta Zuberoa”, Jean-Louis Davant-ekin.

Otsailaren 8an : « Euskara elkarte bat, zer da ? » avec la participation de Topagunea.

Otsailaren 15ean : « Txiapas gaindi », Mirentxu Arbeletchekin.

Otsailaren 22an : “Biolentzia politikoa Euskal Herriko gatazkan” Emilio Lopez Adanekin.

○ **Senpere** – Oxtikenea elkarte

VIgarren kantu xaharren eguna Senperen irailaren 16an.

Xiberoa omenduz, Jean-Mixel Bedaxagar-en parte hartzearekin.

○ **Donibane-Garazi** – Argian elkarte

XV. argazki erakusketa Donibane-Garazin.

2007ko irailaren 8tik 23ra.

Erakusketa eta leihaketa (gaia : « sagarra »).

Sarien emaitza irailaren 16an Donibane-Garaziko herriko etxean.

○ **Donamartiri** – Compagnie des syrtes elkarte

Martxoaren 25ean : « Emazteek egin transmisioa ». Hogeit bat emazte irakurle nahiant eta hiru kantari elkartu dira, korrika kari.

Maiatzaren 26an : “Neanderthalen ametsak”, Baionako Bernat Etxepare lizeoko gazteekin.

Irailaren 30ean : “Océan libre”, Sylvie Molinak bultzaturik, “sorkuntza herritar” horrek hemengo jendeak bildu ditu baita kanpotik jinak, halaber artistak.

Irailaren ...an : mugazgaindiko kultura eragileen topaketa.

○ **Sara** – Turismo bulegoa elkarte (biltzar saila)

XXIV. Sarako Idazleen Biltzarra apirilaren 9an.

120 idazleen ekoizpenen saltzeak eta izenpetzeak.

○ **Urruña** – Iparra Hegoa elkarte

Taldeen ordainketaren parte-hartzea : « Zpeiz mukaki », lapurtar gazteen dantza-antzerki ikuskizuna, « Kuxkuxtu txaranga », « Hazparneko joaldunak », « Baigorriko gaiteroak », « Urruñako trikitilariak ». Pratika kulturaleri buruzko mintzaldia Terexa Lekumberri, Erramun Bachoc eta Jakes Larrerekin.

○ **Uztaritze** – Ur begi elkarte

Sormenaren eresiak : 8. ekitaldia. Uztaritzeko Heraitze auzoan, Larreguienea jauregian, irailaren 2an. Margolari eta eskultore erakusketak, taillerak, Marie Telletchearekin dantza, Jean-Christian Irigoyen eta Christèle Labarry-rekin musika, ipuina Xan Errotabehere eta Fred Fort-ekin.

3.9/ Zubiak eraiki euskal kulturaren eta ekonomia munduaren artean

Gogoeta bat abiatua da « Euskal Herria » label batzuetaz. Kolektiboa izan behar du, hots ekonomia nahiz kultura mundukoek behar dute gogoeta hori elkarrekin eraman.

Euskal kultur erakundeak partaidetza plan bat finkatuko du ipar Euskal herriko enpresa batzuekin enpresa partaide batzuen talde bat sortzeko. Enpresa horiek kultura egitasmo batzu sostengatuko dituzte edo proiektu batzu garatuko dituzte enpresan berean. Euskal kultur erakundeak Baiona Euskal Herriko Merkatal Ganbararen laguntza ukanen du desmarta horren abiatzeko, bai eta enpresa mezenasgoetan berezitua den ADMICAL erakundearena ere.

3.10/ Euskal Herria Munduan, Mundua Euskal Herrian

Euskal kultura ez da bizitzen ahal esperientzien eta jakitateen trukaketarik gabe. Euskal kultur erakundearen asmoa esperimentazio berri batzu abiatzea da Europa Ekialdeko herri berriekin, bai eta ondotik munduko bertze herri batzuekin, bertzeak bertze diasporako euskal etxean bitartez.

Kantuketan era numerikoan eta Ameriketako Estatu Batuetan

Eusko Jaurlaritzako Euskal gizatalde harremanetarako zuzendaritzarekin eta North American Basque Organizations (N.A.B.O.) erakundearekin partaidetzan, Euskal kultur erakundeak, "Kantuketan" (2001-2006) euskal kantuari buruzko erakusketa ibiltariaren eduki gehienak laburbiltzen dituen aplikazio interaktiboa sortu du.

Lau hizkuntzatan dagoen ekoizpen honek (Euskara – Frantsesa – Inglesa – Gaztelera) 120 euskal kanturen entzuteko parada eskaintzen du, eta horretaz gain, erakusketan zeuden bideo artxiboen eta elkarrizketa zatien gozatzeko aukera. Kantuketan erakusketaren gai nagusiak lau atalen bidez azaltzen dira aplikazioan. Donostiako de-do multimedia enpresa garapen teknikoaz arduratu da.

Aplikazioa 2007ko otsailaren 16an estreinatu zen San Franziskoko Euskal kultura zentroan, zentroaren 25. urtemugakari hain zuzen. Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua bertan egon zen baita Josu Legarreta, Euskal gizatalde harremanetarako zuzendaria. Pantxoa Etchegoin, Euskal kultur erakundeko zuzendaria ere han izan zen, beste hainbat euskal diasporako ordezkariaren artean.

4.1/ Euskal kultur erakundearen bitartekaritza lana azkartu

Elkarteen eta erakunde publikoen partaidetzarekin, Euskal kultur erakundeak bere bitartekaritza lana azkartu nahi luke, ahozkotasanari buruzko funtsezko lan baten abiatzeko, sormenaren sustatzeko, euskal kultura ondarea haurrei ezagutarazteko eta ondare hori ahalik eta jende gehienekin banatzeko.

Kultura bitartekaritzak euskal kultura betiko tokietatik atearazi behar du, ekonomia eta kultura munduen bai eta erakaskuntza, sozial, aisialdi edo kirol sail desberdinen arteko hurbilketei buruz lan eginez.

4.2/ « Batekmila – Euskal munduak » erakusketaren inguruko bitartekaritza gauzatu

Bai itxuraren aldetik, bai edukiaren aldetik, erakusketa interaktibo honen inguruko egiazko bitartekaritza politika eramana izan da publiko zabalaren hunkitzeko. Horrela, erakusketaren inguruan asmatuak izan diren ekintzek publiko desberdinen (izan euskaldun ala ez) arteko topaketak eta bizikidetasuna erraztu behar lituzkete,.

«Batekmila – Euskal munduak» erakusketaren inguruko animazioak

Xede horrekin, 2007ko ekainaren 23an, erakusketa estreinatua izan den egunean hain zuzen, Baionako karrikak goiz osoan alaituak izan dira.

Bestalde, erakusketa Baionan egon den denboran (2007ko uztaila-abuztuan, hainbat animazio antolatuak izan dira erakustokian berean.

Bestalde, erakusketa ibiltari hori bi hilabetez egon da Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean, irailaren 17tik azaroaren 17ra arte. Hor ere, hainbat bitartekaritza ekintza eta animazio antolatuak izan dira publiko desberdinentzat.

4.3/ Interfaze eta animatzaile lana azkartu

Ondare sailan

- EKEk departamenduko edo Akitaniako batzorde desberdinetan parte hartu du : Ederguneen eta Ondarearen Departamenduko batzordea, CAUE-ren administrazio kontseilua.
- Herriko Etxeek edo elkarteek galdeturik, egitasmo desberdin batzuen antolaketan parte hartu du : ondarearen balorapena (Larزابaleko harri borobilen interpretazio zentroa, Uztaritzeko latsagiaren zahar-berritzea), erakusketa baten batzordean parte hartzea (Saraleginea etxearen sortzailea den Hypollite Lesca-ri buruzkoa ; Getariako Museoaren Adixkideek galdeturik)
- Euskal Herrian iragan Museoei buruzko mugazgaineko informazio jardunaldietan parte hartu du (2007ko maiatza-ekainean). Eusko Ikaskuntzak antolaturiko egun horietan, Baionako Euskal Museoren bisita antolatua izan da (2007ko maiatzaren 12an). Hortan, EKE-k ipar Euskal Herriko museoen aniztasunari eta bizitasunari buruzko mahain-inguru bat animatu du.
- Azkenik, Euskal Ondarearen Batzordeko bilkurak eta gogoetaldiak animatu ditu eta bilkura horietan harturiko erabakiak obratzen saiatu da.

4.4/ Kultura eragileak lagundu Informazio eta Komunikazio Teknologiekkin zerikusia duten egitasmoetan

Eduki programa

Euskal kultur erakundeak « Eduki » izeneko formakuntza saila antolatzen du 2007ko urritik goiti, kultura eta ondare alorretan internet egitasmo bat alhan ezarri nahi duten Euskal Herri barnekaldeko kultur elkarteekin.

15 proiektu (artista-elkarte) hautatuak izan dira :

- ▶ Ikerzaleak (ondarea)
- ▶ Dariola - Koldo Amestoy (ipuina)
- ▶ Tokia Théâtre (antzerkia)
- ▶ Le Petit Théâtre de Pain (antzerkia)
- ▶ Itzal aktiboa (arte plastikoak)
- ▶ Euskal Herria Zuzenean (festibala)
- ▶ Foyer de Bardos (kultur hedapena)
- ▶ Itoiz - Jazz'in College – Musiques en milieu scolaire (musika)
- ▶ Aitzindariak (dantza)
- ▶ Arrola (dantza)
- ▶ Jean Bordaxar laukotea (kantua)
- ▶ Zirrimarra (arte plastikoak)
- ▶ Arraga abesbatza (koru kantua)
- ▶ Elaudi taldea (kantua / musika)
- ▶ Haize Berri (kultur zentroa)

www.eke.org euskal kulturaren web atariko baliabide teknologietan oinarrituko den dispositiboari esker, kultura eragileek beren web orrialdeak sortzen ahalko dituzte, hasieratik bukaeraraino lagunduak izanen direlarik.

Egitasmoak anitzak izan daitezke : web orrialde tematikoen sortzea (sorkuntza baten sustapena, elkarte baten aurkezpena...), edo blogak, irudi galeriak, edo bideoak sareratzea adibidez.

Eduki programaren helburua bikoitza da:

- Alde batetik barnekaldeko kultur elkarteak laguntzea interneten komunikatzen, lehen web argitarapen egitasmo xume batetik abiatuz
- Bestaldetik, euskal kulturari eta ondareari buruzko eduki numerikoen hedapena bultzatzea.

2007an hasia izan bada ere Eduki programa 2008an egiazki gauzatuko da Europako Erkidegoak lagundu egitasmoa Leader + programaren barnean.

4.5/ Eke-berriak aldizkariaren hedapena

eke-berriak aldizkariaren ekoizpena

- 7. zenbakia (otsailekoa). Gai nagusia : « Zaharren urratsetik »
- 8. zenbakia (ekainekoa). Gai nagusia : « Batekmila / les mondes basques » erakusketa

4.6/ Publiko berriak euskal kulturari sentsibilisatu

«Kutsidazu bidea, Ixabel» filma

Azpitituluak frantsesez eta hedapena

Jakinik oraino anitz badela egiteko publiko zabalak euskal ekoizpen zinematografikoa ezagut dezan, Euskal kultur erakundeak erabaki du lehen aldikotz « *Kutsidazu bidea, Ixabel* » filmaren frantsesezko azpitituluen gastuak bere gain hartzea.

Tentazioa, Orio, eta *REC* deitu hiru etxe bildu dira Josean Sagastizabal-ek idatzi liburuan oinarritzen den film honen ekoizteko. Bi ekoizleak Fernando Bernues eta Mirela Gabilondo dira. Historiak euskara ikasteko baserri batera doan hiritar gazte baten abenturak kontatzen ditu. Komedia hori frankismoaren ondotik kokatzen da...

Euskal kultur erakundea filmaren hedapenaz arduratu da AEKrekin bereziki. Alabaina, hitzarmen bat izenpetua izan da AEKrekin, filma iparraldea sei aldiz emana izan dadin Korrika kari :

- 🚩 L'Atalante (Baiona) : otsailaren 9a
- 🚩 Le Royal (Biarritz) : otsailaren 15a
- 🚩 Les Variétés (Hendaia) : martxoaren 8a
- 🚩 Maule Baitha (Maule) : martxoaren 12a
- 🚩 L'Aiglon (Kanbo) : martxoaren 15a
- 🚩 Le Vauban (Donibane-Garazi) : martxoaren 20a eta 23a

Bestalde filma Bidarten emana izan da maiatzaren 5ean eta Créon herrian martxoaren 17an Max Linder zinearen « Les rencontres espagnoles » festibalaren kariatara. Denetara, 9 emanaldietan, 1000 ikusle baino gehiago bildu dira.

Kultura animazioak Baionako ospitalean (2004an izenpetu hitzarmena lekuko)

Bilkurak segitzen dira hilabeteen behin « Ospitalean euskaraz » taldeko partaideekin. Bi bilkura antolatuak izan dira ere zuzendaritzarekin, besteak beste 2008an iragaitekoa den harrera gunearen estreina antolatzeko. Prestatzen ari diren ekimenen artean, artista baten egonaldia tokian obra baten eraikitze xedearekin, “Euskal Herriko aurpegiak” ukipen pantailaren erabilpena, seinaleta elebiduna...

Kultura animazioak Olentzeroren inguruan

2005ean Lauburu elkartearekin egin erakusketak arrakasta biltzen du. Euskal kultur erakundeak laugarren ale baten ekoiztea erabaki du 2007an. Partaide ezberdinek euskarri hau erabili dute Iparraldeko xoko ezberdinetan : hezkuntza ikuskaritzak erakasle talde batekin antolatu formakuntza baten kariatara, Baionako Hiruki elkarteak Euskal erakustokian ezarriz urte hondarreko animazioentzat, Errobi herri elkargoak lurraldeko eskola eta liburutegientzat, Hazparneko Gau Eskolak, Ikas zentroak Xiberoko eskola eta liburutegientzat.

Bestalde, Errobi herri elkargoko euskara teknikalariak galdeginik, Euskal kultur erakundeak esku ukaldi bat eman du ere Larresoron eraikia zen ikaztegiaren inguruan antolatu haurren animazioentzat.

Hizkuntza eta kultura topaketak Kanbon

« XII. hizkuntza eta kultura topaketak » Kanbon antolatu dituzte azaro hasieran Euskal kultura sostengatzen duen herriarteko sindikatak eta Euskal kultur erakundeak, euskararen erakunde publikoaren, Kanboko herriko etxearen, Euskal konfederazioaren laguntzarekin. Lurralde ezberdinetatik (Alsazia, Britainia, Katalunia, Korsika, Guyana, Martinika, Mayotte, Okzitania eta Réunion ugarteak) etorri 80 bat lagunek parte hartu dute gogoetetan. Hizkuntza politika eskualde mailan, estatu mailan eta Europa mailan izan da aipagai nagusia.

Topaketetako aktak aurki daitezke Euskal kultur erakundearen web gunean.



INJENERITZA KULTURALA

Kapitulu honetan sartu ditugu 5 langilen lan-postuak eta horieri doazkion gastuak.

- *Landart Daniel*
- *Suarez Frank*
- *Lekumberri Terexa*
- *Maitia Pantxika*
- *Larre Jakes*

Euskal kultur erakundeko partaideak

ABBADIAKO ADIXKIDEAK	ESPERANTZA	LAGUN
ACCORDS	EUSKAL HAZIAK	LAGUNARTE
AEK	EUSKAL HERRIA ZUZENEAN	LAGUNT ETA MAITA
AINTZINDARIAK	EUSKAL IRRATIAK	LAUBURU
AKELARRE	EUSKAL KANTU XAPELKETA	LE PETIT THEATRE DE PAIN
AMIKUTZU	EUSKAL KONFEDERAZIOA	LES LABOURDINS
ANAIGAZTEAK	EUSKALTZAINDIA	LYCEE DE NAVARRE
ANTXETA IRRATIA	EUSKO IKASKUNTZA	MAIATZ
ARRAGA ABESBATZA	EUSKOARKEOLOGIA	MAITE DUGULAKO
ARGIAN	FESTIVAL DES TROIS CULTURES	MUSIQUES EN MILIEU SCOLAIRE
ASS. CULTURELLE HENDAYAISE	FFPB	MVC POLO BEYRIS
AU FIL DU THEATRE	FOYER DES JEUNES DE BARDOS	OFFICE DE TOURISME - ASCAIN
AZIKA	FOYER RURAL D'AICIRITS	OFFICE DE TOURISME - SARE
BALLET BIARRITZ	HAIZE BERRI	OFFICE DE TOURISME SAINT PALAIS
BEGI ARGI	HATSA	OINAK ARIN
BERTSULARIEN LAGUNAK	HEBENTIK	OR KONPON
BETIZU	HERRI KIROLAK	ORAI BAT
BIARRITZ CULTURE	HERRI SOINULARIAK	OREKA
BIL XOKUA	HERRIA	ORGUE EN BAIGORRI
CENTRES MUSICAUX RURAUX	HIRIBURUKO UHAINA	OTE LORE
CENTRO VASCO FRANCES	IBAIALDE	OZTIBARREKO ANTZERKIA
CENTROS DE ESTUDIOS - BUENOS AIRES	IKAS	PARISEKO EUSKAL ETXEA
COMPAGNIE DES SYRTES	IKAS BI	PEÑA DONAZAHARRE
CONSEIL DE DEVELOPPEMENT	IKHERZALEAK	SOCIETE DES AMIS DU MUSEE BASQUE
DARIOLA	IPARRALAI	SOINUBILA
DISTIRA	ITSAS BEGIA	THEATRE DES CHIMERES
EIHARTZEA	ITZAL AKTIBOA	THEATRE DU VERSANT
EINSTEIN ON THE BEACH	IZPEGI	TRABOULES
EKIMENA	JOSTAKIN	UDA LEKU
ELGAR OINKA	KANTIRUKI	UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA
ELIRALE	KHANTA XIBERUA	UR BEGI
ELTZARRUZE	KIMUA	ZABALIK
ENTZUN IKUS	KITZIKAZAN/K	ZIRRIMARRA
ERROBIKO KASKARROTAK	KONPANY BERITZA	ZTK